

Besainek, herriz ere eskuratu zuten saria.

Mikel Sarriegik irabazi du Aurreku Txapelketa

Pasaia Atzo, goizeko 10etan, Pasaiko Kultur Etxean bildu ziren zortzi udalako hamabost dantzariak Euskal Herriko Gipuzkoako Aurreku Txapelketaren frogan parte hartzeko, izan ere, azto ospatu bait zen txapelketa honen bederatzigarren edizioa. Pasaiko Udalak, Euskal Dantzarien Biltzarra eta Alkartasuna dantzari taldearen laguntzarekin eta Banco Guipuzcoanok patrozinatutako txapelketan, joan den larunbata aurretik, zortzi udalek beren hamabost aurrekulari hoberenak aurkeztu zituzten; Donostia, Irun, Bergara, Beasain, Elgoibar, Orereta, Pasaia eta Zarautzkoak. Lehen kanporaketak gainditu ondoren, Pasaiko zumardian bildu ziren klasifikazioa gainditu zuten hamar aurrekulariak azken frogan parte hartzeko, eta Ricardo Ugarte saria norik jasoiko duen ikusteko. Azken saioa burutu ondoren, Beasaingo Udalerriko Mikel Sarriegi txapeladuna izendatua izan zen. Antolatzaileek aditzera eman zuten, Mikel Sarriegik, seigarren aldiz eskuratu du sari hau. Bestalde, Pasaiko Xabier Ezkurak bere sari berezia jaso zuen. Gainerako finalistak orden honetan klasifikatu ziren: bigarrena, Aizarnazabalgo Bitor Zubizarreta; hirugarrena, Irungo Patxi Ribera; laugarrena, Oreretako Iñaki Lasa; bostgarrena, Zarautzko Telmo Esnal; seigarrena, Irungo Ramon Sanchez; zazpigarrena, Azpeitiko Eduardo Muruamendiaran; zortzigarrena, Azpeitiko Luis Alberdi; bederatzigarrena, Irungo Xabier Urresti eta hamargarrena, Mikel Coca Oreretarra.

Aita Onaindiaren omenez

Aita Onaindiari, omenaldia ala ez dakit zer, baina aspaldian zor genion. Gure aspal-aspaldiagoko zorren eta eskerronaren aitortza. Ez bere lanagatik bakarrik: eta, pentsa, oker ez banago, hirurogei eta hiru urte bada, euskaraz publikatzen ari dela! Bihotz eta esku zabalak denbora horretan egin dituenak, berak bakarrik dakizki. Beharbada eragin dituenak ere, gogoratuko ditu oraindik batzuk. Baina, seguruenik berak asko jakin gabe, zer sinifikatu izan duen jende askorentzat momentu erabakior batzuetan, legezkoa zen herri honek aitortzea noizpait.

Omenaldia egiten diogu, ez historia: izan bedi zilegi halere begiradaxo bat historiari botatzea. Memoria historikoa, izan ere, badirudi nahikoa erlatiboa izaten dela eta pertsonekin ez bereziki justua. Gure artean gerraondoko birrastapenak, mahain inguru, gain eta azpietan, maiz aipatzen dira. Errazena, topikotara jotzen dugu denok. Gauzek, ordea, momentuan zeukaten inportantzia eduki dute momentu bakoitzean, ez gerokoa eta ez lehenagokoa. Aresti bat, esaterako, oso inpor-




tantea izango zen gero. Eta ez diet nik ezer kendu nahi Arestiri, Txillardegiri eta besteei. Baina 1960 aldera guretzat egiaz inportantzia zeukana, horien aldean, Xanti Onaindia bat zen. 55 eta 65 bitarte horretan gutxi-gorabehera joan bada finkatuz

“gerraondo literarioa”, giltzarriko pertsona bat Xanti Onaindia izan genuen fenomeno hartan. Haren inguruan — babespean, esan daiteke — biltzen ziren Bizkaian euskaltzaleak, Euskadi osoko poesi eta bertsozaleak. Hainbat saiotxo eta lantxo sortu bait zen giro hartatik. Guzti hartatik, nik orain gauza bat nabarmenduko nuke, beharbada literaturaren historia ohizko batean bigarrendarra, baina perspektiba historikoa guztiz garrantzizkoa iruditzen zaidalako: liburu bat momentu justuan eman zigula alegia, 1954ean, “Milla Euskal Olerki Eder”, nik ez bait dakit sekula behar bezala baloratu izan ote den hark izan duen inportantzia. Errebelazio bat izan zen.

Gero, eta gaur arte, Aita Onaindiaren lana, obra horren jarraipena izan dela neurri handi batean, esan daiteke: gure altxor literarioa ezagutzera ematea. Noizko, baina, historia handiaren argitalpena bukatuta, kalean? Herri honek hori ere Aita Onaindiari aspaldian zor bait dio: Euskal Herriak hari, eta hark Euskal Herriari, omenaldi.

Joxe AZURMENDI

Qué es Amaiur?




ALGO NUEVO...



Un Restaurante de comida tradicional y un especializado Asador para satisfacer los gustos más exigentes.



Además, una amplia zona verde de recreo con instalaciones al aire libre: Minitrén, Camas elásticas, Tenis de Mesa, Billares, etc.



AMAIUR

Jatetxe

RIPA, Carretera Ulzama a 2 Kms. de Ostiz

Bar-Asador-Restaurante



TEATRO VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

MAÑANA MARTES 19.30 H.

OPERA

WOLFGANG AMADEUS MOZART

«EL RAPTO EN EL SERRALLO»



Director de Escena: JITKA STOLKALSKA
Director musical: RUBEN SILVA
Coro de la OPERA DE CAMARA DE VARSOVIA
Orquesta WARSAW SINFONIETTA

Los encantos de esta pieza — la primera obra maestra indiscutible en su rango del autor — se resisten al «stacatto» de la simple enumeración: En cuanto a sus méritos musicales, aún sería más difícil elogiarlos todos; sin duda, cuando Mozart la compuso, estaba en pleno estado de gracia...

Colabora: Radio San Sebastián

Fernando SAVATER

